The ARTWORK *as a* LIVING SYSTEM

CHRISTA SOMMERER & LAURENT MIGNONNEAU

Erakusketa honek ikuspegi orokorra eskaintzen du, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik Christa Sommerer austriarrak eta Laurent Mignonneau frantziarrak osatutako bikote artistikoak egin duen lana ezagutzeko. Zientziatik, teknologiatik eta artetik hartutako baliabideak erabiliz, biak elkarrekin aitzindari izan dira *interfazearen artea* egiten. Arte honek, interfaze tekniko berritzaileei esker, aukera ematen du bisitariak artelanarekin interakzio fisikoa izan dezan.

Sommerer-ek eta Mignonneauk hasieratik erabili dituzte algoritmoak beren artelanetan forma bizidunak eta, orobat, horien bilakaera eta hazkundea irudikatzeko. Beren instalazioak jendearen ekintzen bidez sortuak dira soil-soilik, eta haietan agertzen diren giza fabrikazioko sistema artifizialek organismo natural bizidun gisa jokatzen dute. Bi artista hauek asmatutako gailu teknikoek errealitate birtualak eta ingurune murgiltzaileak sortzen dituzte, eta horiek aukera ematen dute beste mota bateko esperientziak izateko. Horrela, landareen hazkundea ikertu, eta animalia txikien portaera aztertu ahal da, hala nola euliena edo kakalardoena, ordenagailuz sortu, eta ekosistema konplexuen barruan txertatu ondoren. Sommerer eta Mignonneauren lan batzuk arte digitaleko klasikotzat hartzen dira, eta zabaltzen duten aukera berrian artelanek sistema bizidun gisa jokatzen dute. Artista gutxik utzi dute haiek bezain arrasto nabarmena, mugimenduan dauden irudien fase mediatikotik irudi bizidunen fasera arteko trantsituan.

Atzera begirako erakusketa honek omenaldia egin nahi dio bi sortzaileen ibilbideari, nazioarteko multimedia-artista eta arte interaktiboko aitzindari, ikertzaile eta irakasle izateagatik. Erakusketak 1992tik 2023ra bitarteko hemezortzi lan jaso ditu, eta aukera ematen du bikote honen artxiboak lehen aldiz ikusteko errealitate areagotuko ingurune batean.

The artwork as a living system Karin Ohlenschlägerren kontzeptu batean oinarrituta dago eta ZKM | Centro de Arte y Medios Karlsruhe, Alemania, OÖ Landes-Kultur GmbH, Linz, Austria eta iMAL, Brusela eta Belgikak koproduzitu dute. Hasiera batean, Karin Ohlenschläger, Peter Weibel eta Alfred Weidingerrek komisariatu zuten.

La presente exposición ofrece una visión de conjunto del trabajo que desde los primeros años noventa ha venido realizando la pareja artística formada por la austríaca Christa Sommerer y el francés Laurent Mignonneau. Valiéndose de recursos tomados de la ciencia, la tecnología y el arte, juntos han sido pioneros de un *arte de la interfaz* que gracias a innovadoras interfaces técnicas permite que el visitante interactúe físicamente con la propia obra de arte.

Desde sus inicios Sommerer y Mignonneau han utilizado algoritmos para representar en sus obras no solo formas vivientes sino también la evolución y el crecimiento de estas. En sus instalaciones, creadas exclusivamente por las acciones del público, se muestran sistemas artificiales de fabricación humana que se comportan como organismos naturales vivos. Los dispositivos técnicos ideados por los artistas producen realidades virtuales y entornos inmersivos que permiten tener experiencias de un nuevo tipo. Es posible así explorar el crecimiento de las plantas o estudiar el comportamiento de pequeños animales como moscas o escarabajos, generados por ordenador, y su inserción dentro de ecosistemas complejos. Los trabajos de Sommerer y Mignonneau, algunos ya clásicos del arte digital, abren un nuevo horizonte en el que las obras de arte actúan como sistemas vivos. Pocos artistas han dejado una impronta tan señalada como la suya en el tránsito desde la fase mediática de imágenes en movimiento a la de imágenes vivas.

Esta retrospectiva es un homenaje a la trayectoria de ambos creadores como artistas multimedia de nivel internacional y como pioneros, investigadores y docentes del arte interactivo. La muestra se compone de dieciocho trabajos que van de 1992 a 2023 y permite por primera vez tener acceso a los archivos del dúo en un entorno de realidad aumentada.

The artwork as a living system está basada en un concepto de Karin Ohlenschläger y está coproducida por ZKM | Centro de Arte y Medios Karlsruhe, Alemania, OÖ Landes-Kultur GmbH, Linz, Austria e iMAL, Bruselas, Bélgica. Inicialmente fue comisariada por Karin Ohlenschläger, Peter Weibel y Alfred Weidinger.

The exhibition provides an overview of the oeuvre of the Austrian-French artist duo Christa Sommerer and Laurent Mignonneau since the early 1990s. Drawing on natural science, technology, and art, they pioneered the Art of Interface, in which innovative technical interfaces enable the visitor to physically interact with the artwork.

Very early on, they utilized algorithms in their works -to represent not only living forms but also their evolution and growth. In their installations, which are created only through the actions of the audience, man-made artificial systems are shown, that exhibit behavior like natural living organisms. Technical devices originally designed by the artist couple produce virtual realities and immersive environments that enable new kind of experiences, like exploring the growth of plants or the behavior of tiny computer-generated creatures, such as flies and beetles, and their embedding in complex ecosystems. Their works, some classics of digital art, open a new horizon in which artworks act as living systems. Few artists have shaped the transition from the moving image media phase to the living image media like Sommerer and Mignonneau.

The retrospective is a tribute to their Iife's work as internationally active media artists, pioneers, researchers and teachers of interactive art, it comprises eighteen works from the years 1992 to 2023 and for the first time makes the archive of the artist duo in an augmented reality environment accessible.

The artwork as a living system is based on a concept by Karin Ohlenschläger and is co-produced by ZKM | Karlsruhe Art and Media Center, Germany, OÖ Landes-Kultur GmbH, Linz, Austria and iMAL, Brussels, Belgium. It was initially curated by Karin Ohlenschläger, Peter Weibel and Alfred Weidinger.